



# EDIZIO INDEPENDENTEAREN NAZIOARTEKO TOPAKETAK

2021EKO  
AZAROAK  
23-26

iruñea

ELIARSTICO

 Alianza  
internacional  
de editores  
independientes

 EDITARGI  
ASOCIACIÓN DE EDITORES DE NAVARRA  
NAFARROAKO EDITOREEN ELKARTEA

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

 AGENDA  
2030

 Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udalak

 GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE | DIRECCIÓN GENERAL DEL LIBRO Y FOMENTO DE LA LECTURA

AC/E  
ACCIÓN CULTURAL  
ESPAÑOLA

 National Culture Fund Bulgaria |  Fondation Charles Léopold Mayer pour le Progrès de l'Homme

 Czech Lit | 

 AGENCE LIT  
CULTURE & ADRESSEUEL  
EN NOUVELLE-AQUITAINE

 INSTITUT FRANÇAIS

 INSTITUT FRANÇAIS

 INSTITUT FRANÇAIS  
Maroc

 INSTITUT FRANÇAIS  
Togo

vivo  
les  
cultures

 INSTITUT FRANÇAIS

 AMBASSADE  
DE FRANCE  
EN INDE  
L'Action  
Cultive  
L'Innovation

 INSTITUT FRANÇAIS  
INDIA

# “Nazioarteko topaketak”, munduko editore independenteen argazkia

2002an [Editore independenteen nazioarteko aliantza](#) sortu zenetik (munduko 55 herrialdetako 750 argitaletxe independente baino gehiagok osatutako nazioarteko sarea), “Nazioarteko topaketak” 4 urtetik 8 urterako maiztasunarekin antolatzen dira mundu osoko editore independenteak biltzeko: [2003an Dakarren](#) (Senegal), [2007an Parisen](#) (Frantzia), [2014an Ciudad del Cabon](#) (Hegoafrika) eta 2021ean Iruñean.

Nazioarteko edizio independenterako funtsezko unea dira, kontinente guztietako eragileak biltzen baitituzte: **munduko edizio independentearen panorama modu kolektiboan eraikitzeko aukera ematen dute (Latinoamerika, Afrika, Asia, Europa, arabiar mundua eta Ozeania)**. Edizio independenteari buruzko eztabaida, topaketa eta hausnarketarako gune aparta dira, eta ez dute parekorik nazioartean.

## 2021ean ospatu eta BIRpentsatzea...

2017tik 2018ra bitartean, Aliantzaren sarea 2019-2021eko nazioarteko topaketak antolatzen eta abiarazten ari zenean, **agerikoa** zen zer zegoen jokoan: bibliodibertsitatea eta argitaletxe independenteek egiten duten lana ospatzea; pazientziaz eta erabakitasunez eraiki genituen jardunbide solidarioak BIRpentsatzea, baita liburuaren arloko beste profesional batzuekin eta irakurleekin dugun harremana ere.

Agerikoa 2012-2014ko azken topaketez geroztik egindako bidea ikusita, baina Aliantzaren sarearen heldutasunagatik ere bai, 2021ean 20. urtemuga ospatzen baitu.

### 2020an, mundu-mailako osasun-krisia, porrot-puntua

Osasun-krisiaren ondorioak oraindik ikuspegi ekonomiko, sozial eta politikotik zehazkiro ebaluatzea zaila bada ere, **BIRpentsatzea ebidentzia da oraindik, baina premia bilakatzen ari da.**

Zergatik dira editore independenteek hain eragile garrantzitsuak krisialdi honetan? Nola laguntzen dituzte eraldaketa sozialak eta abian diren trantsizioak? Zeintzuk dira biharko munduak hobe ulertzeko, konprenitzeko, garatzen dituzten tresnak eta jarduketak? Nola laguntzen dute liburuek eta transmititzen dituzten ideiek sormen, ikuspuntu eta ideien aniztasuna defendatu eta babesten?

## “Etorkizuneko” edizio independentea?

Nazioarteko topaketa hauek **munduaren egoerari buruz ikasteko unea** dira; abian dauden trantsizio- eta/edo haustura-mugimenduen nazioarteko kartografia.

Liburuek –ideiek– bektore sozial eta emantzipatzaile gisa duten eginkizuna zalantzan jarri eta horri buruzko eztabaidak piztea dute helburu.

Gaurko eta biharko erronkei buruzko hausnarketa egin eta bizipenak zein jarduketa zehatzak partekatzeko gunea dira: ekologia, ekonomia sozial eta solidarioa, edizio inklusiboa, kultura plataformizatzea...

Amaitzeko, topaguneak elkartasuna, konfiantza, giza harreman eta kulturen arteko elkarrizketak uztartzeko espazioa dira.

## Topaketen bidea eta etapak

Aliantzaren nazioarteko topaketak **borondatez** eraikitzen dira **denbora luzez**, arau bihurtu den erritmo frenetikoaren **kontra**. **Hari nagusi** bati jarraitzen diote, duela 20 urtetik Aliantzaren baitan hedatzen dena: Aliantzak sortu zenetik defendatzen dituen gaiak presente daude oraindik ere (elkartasuna, harremanen ekitatea, fluxuen berrorka, ideien zirkulazioa, tokiko sorkuntzak eta ekoizpenak, *fair speech*, kezka ekologikoak...). Argitalpen-mugimendu independentearen euskarriak dira, eta haiei egungo galderak eta eztabaidak gehitzen zaizkie.

**Modu kolektiboan eraikitzen dira**, oinarri hartuta 2012-2014 topaketetatik aurrera egindako lana eta orduan emandako [80 gomendioak](#), bai eta liburuaren arloko profesionalen iritzia, mundu osoan edizio independentearen zaintza-lana, beste kultura-eragile batzuekiko etengabeko elkarrizketa eta hantemenka sortzen diren jarduketak, joera eta alternatiben behaketa.

Topaketak **bi mailatan eraikitzen dira (publikoa eta “barnekoa”)**, elkar elikatzen dutenak eta elkarren osagarri direnak.

- **Maila publikoa**, biltzeko, solasteko, ikasteko asmoarekin, guztientzat (liburuaren arloko profesionalak, irakurleak, kultura-eragileak, unibertsitarioak, gizarte zibileko mugimenduak, etab.) irekita dauden bileretan mamitzen dena. **Aliantzaren espazioa jarduketak BIRpentsatzeko eta, halaber, editoreek egun dituzten harremanak zalantzan jartzeko baliatzean datza, espazio hau gai berriak proposatzeko, utopiei bide emateko eta elkarrekin proiektatzeko baliatzean.**
- **Barne-maila** (Aliantzaren sareari dagokiona), gomendioak eta tresnak proposatzeko, etorkizunerako orientabideak garatzeko eta sarearen gobernantza zehaztu eta perfektionatzeko helburua duena.

Topaketak 2012-2014ko nazioarteko topaketez geroztik **Aliantzak finkatutako lantalde eta lantegi tematikoen** baitan egituratzen dira (honakoei buruz: 1/libururako politika publikoak; 2/editatzeko askatasuna; 3/arlo digitala; 4/tokiko eta nazioko hizkuntzetan argitaratzea; 5/kolaborazio editorial solidarioak; 6/liburuak dohaintzan emateko jardunbideen inpaktuak). Halaber, **topaketak eztabaida kolektiboan, analisisien ekoizpenaren eta tresnen baitan egituratzen dira.**

Zehazki, Aliantzaren sareari dagokionean, 2022-2025 aldirako honako emaitzak erdietsi nahi dira:

- Gomendioak ([aurreko topaketetako 80 gomendioak](#) oinarri hartuta, baina egungo krisiaren testuingurua ere bai)
- 2022-2025 aldirako orientabideak eta ekintza-plana
- Elkarrearen gobernantza egokitu eta onestea / berrestea

## Iruñeko topaketen egitarauan

Editore independenteek BIRpentsatu beharreko lehenetsutako gai gisa identifikatu dituzten horiek dira, hain zuzen ere, **Iruñeko topaketen gai nagusiak**. Egitaraua denbora luzez prestatu da, Aliantzaren dimentsio internazional, interkultural eta kolektiboa kontuan hartuta. Aliantzaren erabaki-organoa den CIEIren (Editore Independenteen Nazioarteko Batzordea) gomendioetatik abiatuta, lantalde bat sortu zen. Lantalde horrek mahai-inguruetan parte har lezaketan hizlariak identifikatu zituen (akademikoak, liburugintzako profesionalak, kulturakoak, gizarte zibilekoak, etab.), eta bilerak egin aurretik euren hitzaldiak prestatzen lagundu zien.

Topaketetako goizak (9:00-14:00) **bilkurei eskainiko zaizkie**, eta horietan **sektorearen etorkizunean erabakigarriak diren gai nagusiak izango dira hizpide** (dependentziak eta interdependentziak, liburuaren ekologia, desberdintasunak eta bere baitako nagusitasun-harremanak, hizkuntza minoritarioetan argitaratzea, editatzeko askatasuna, teknologiaren inpaktua). Arratsaldeetan (16:00-18:00), aldiz, **profesionalen arteko aliantzak ehuntzea helburu duten aurrez aurreko lantegiak eta topaketak sustatuko dira**. Lantegi horien ondoren, 18:00etatik 19:30era, argitaletxeen arteko aurrez aurreko topaketen agenda bat ezarriko da lau egun horietako bakoitzerako. Katalogoak aurkezteko eta eskubideen salerosketa negoziatzeko une apartak izan daitezten antolatu dira.

# Egitaraua

Topaketak [Baluarten](https://babelica.alliance-editeurs.org/es/participer/) egingo dira (Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditoriuma). Linean eta zuzenean ere jarrai daitezke (<https://babelica.alliance-editeurs.org/es/participer/>).



Egitarauan adierazitako ordutegiak Nafarroako probintziako ordutegiak dira.

## 2021eko azaroaren 22a, astelehena

### Topaketen inaugurazioa (18:00)

Inaugurazio-hitzaldia. Nafarroako Gobernuko eta Iruñeko Udaleko ordezkariak bertaratuko dira, baita Nafarroako Parlamentuko lehendakaria, Espainiako Kulturako Ministerioko, Nazioarteko Editore Independenteen Nazioarteko Aliantzako eta EDITARGIren ordezkariak ere (Nafarroako Editoreen Elkarte); azken horiek topaketen antolatzaileak dira.

## 2021eko azaroaren 23a, asteartea

### Sarrera-hitzaldia (9:00-9:30)

### Bibliodibertsitatea: independentzia eta interdependentziak (9:30-14:00)

Azken urteotan, independentzia- eta bibliodibertsitate-nozioak errepikatu egiten dira sektoreari buruzko ia hitzaldi guztietan. Alabaina, toki komunitik haratago, horietan sakontzen saiatuz gero, interdependentzia-harremanen sare trinko bat topatzen dugu aldiro, eta nonahi, beti esplizitu egiten ez diren gure gizarteko beste alderdi ugariekin batera. Behar bezala identifikatzearen mende egongo da nozio horietatik abiatuta eraikitako esparru teorikoak eslogan hutsa atzean uztea, gure argitalpen-jarduerak gizartean duen tokiari buruzko hausnarketa indartsua zabaltzeko.

### > Gaur egungo munduaren erronkekin konprometitu dagoen eta askotarikoa den liburuaren ekosistemaren erronkak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, instituzionalak, ekologikoak...) 9:30-11:30

- John B. Thompson, soziologoa, Erresuma Batua
- Julien Lefort-Favreau, Literatura garaikideko eta teoria kritikoko irakaslea, Quebec/Kanada
- KENZA Sefrioui, editorea (En toutes lettres), Maroko
- Esther Merino, editorea (éditions les Monédières eta Akitania Berriko Eskualdeko Editoreen Elkarteko lehendakariordea), Frantzia
- Alfonso Serrano, editorea (La Oveja Roja), Madril (moderatzailea)

### Kafea (11:30-12:00)

### > Liburuaren ekologia (12:00-14:00)

Ia edozein estatutako kontabilitate nazionalari begiratu azkar bat emanez gero, gure jardueraren editoriala industria-jardueren kategorian nola txertatzen den identifikatu ahal izango dugu. Ez dago ezer logikoagorik lehengai ugari eta lan-indar handia mugiarazten dituen lan baterako; izan ere, produktu merkantilizagarri bihurtuta, mundu osoan zehar garraiatzen eta merkaturatzen dira. Giza jarduerak planetan duen iraunkortasun ekologikoari buruzko hausnarketa saihestezina den garai honetan, ezerk ez du eragotzi behar lasaitasunez aztertzea, sektoreko eragile aktibo garen aldetik, zer erantzukizun eratortzen diren gure hautuetatik. Eta digitala den orok gero eta ikusgarritasun handiagoa duen testuinguru batean, itxuraz ukiezina den hodei horren atzean ezkutatzen denari erreparatzea komeni da.

- Bizipenak eta abiapuntu diren azterlanak: gaiaren egoera
  - Sektorea sistema gisa, osotasunean pentsatzea haren aberastasuna berreskuratzeko
  - Bizi-zikloa aztertzea: kateko jarduera guztiak inpaktu ekologiko guztiak definitzeko erronkan integratzeko erronka
  - Digitala: zero inpaktu ekologikoaren ilusioaren kontra
- 
- Anaïs Massola, liburu-saltzailea (Le Rideau rouge eta Association pour l'écologie du livre elkartearen sortzailekidea), Frantzia
  - José Bellver, Madrid
  - Susan Hawthorne, editorea (Spinifex Press), Australia
  
  - Corinne Fleury, editorea (Atelier des nomades), Maurizio/Frantzia (moderatzailerak)

Bazkaria (14:00-15:30)

**Lantegi kolektiboa: jarduketa ekologikoak liburuaren sektorean (16:00-18:00)**

aldez aurretik izena emanda

**Aurrez aurreko topaketa profesionalak (18:00-19:30)**

# 2021eko azaroaren 24a, asteazkena

## Botere- eta nagusitasun-harremanak liburuaren munduan: kolonialismo kulturala, gutxiengoak errepresentatzea, emakumeak liburugintzan... (9:00-14:00)

### > Zer esaten da eta non esaten da? (9:00-11:00)

Liburuaren munduko kontzentrazio-logikak eta arlo komertziala kulturalaren gainetik nagusitzearena, sektorean eragina duten beste bultzada kontserbatzaile batzuekin nahasten dira, esaterako: kolonialismo kulturala, patriarkatua, gutxiengoak eta hizkuntza periferikoak marjinalatzea... Botere- eta nagusitasun-harreman horiei buruz hausnartzea, liburuaren eta hitzaren alderdi askatzaile eta eraldatzailea indartzeko gonbita egiten da Edizio independentearen nazioarteko topaketen bigarren goizean.

- Gutxiengoak errepresentatzea / edizio inklusiboa (nork du argitaratu, idatzi eta bere ahotsa entzunarazteko aukera?)
  - Hegoaldeko eta Iparraldeko merkatuen arteko desoreka (kolonialismo kulturala)
  - Hizkuntza minorizatuetan editatzea
  - Literatura indigena
- 
- Gisèle Sapiro, soziologoa, Frantzia
  - Ronny Agustinus, editorea (Marjin Kiri), Indonesia
  - Samia Zennadi, editorea (Apic), Aljeria
  - Ibrahima Aya, editorea (Tombouctou), Mali
- 
- Paulo Slachevsky, editorea (Lom Ediciones), Txile (moderatzailea)

### Kafea (11:00-11:30)

### > Emakumeak edizioaren munduan (11:30-13:30)

Antza denez, herrialde askotan, edizioarekin lotutako lanpostu gehienetan emakumeak aritzen diren arren – eta egoera testuinguru kultural eta liburuaren arloko merkatu guztietan berdina ez bada ere – , emakumeek ordezkaritza txikia dute oraindik argialetxeetako ardura-postuetan, eta emakumezko autoreek ere gizonezkoek baino literatura-sari gutxiago jasotzen dituzte. Europan bereziki nabarmendu den egoera hori, desoreka hori, orokortu al daiteke nazioartean? Zer esan nahi du, zehazki, emakume izateak edizioaren munduan?

Nazioarteko edizio independentearen panorama askotarikoa da sektoreko emakumezko profesionalen esleitzen zaien tokiaren eta eginkizunari dagokionean. Sirian, Txekiar Errepublikan, Kamerunen eta Kanadan lan egiten duten emakumeak, edo emakume idazle, editoreak edo erredaktore feministak, mahai-inguru honek ahotsa emango die nazioarteko edizioaren panorama diseinatzen laguntzen duten liburuaren arloko emakume profesionalen.

- Samar Haddad, editorea (Atlas Publishing), Siria
  - Barbora Baronová, editorea (wo-men), Txekiar Errepublika
  - Julia Ortiz, editorea (Criatura Editora), Uruguai
  - Djâili Amadou Amal, autorea, Kamerun
- 
- Ana Gallego Cuiñas, Antropologia Sozial eta Kulturala, Granadako Unibertsitatea (moderatzailea)

### Bazkaria (14:00-15:30)

## Lantegi kolektiboa: ekonomia sozial eta solidarioko jarduketak liburuaren sektorean (16:00-18:00)

aldez aurretik izena emanda

## Aurrez aurreko topaketa profesionalak (18:00-19:00)

## Aurrez aurreko topaketa sektorialak (19:00-20:00)

# 2021eko azaroaren 25a, osteguna

## Editatzeko askatasuna / *fair speech* (9:00-11:30)

2021eko azaroan, Editore Independenteen Nazioarteko Aliantzako kideek editatzeko askatasunari buruzko aurrekaririk ez duen azterlan kolektiboa argitaratuko dute. Haien testigantzek munduan zehar editatzeko askatasunaren panorama paregabea eta plurala eskaintzen dute. Estatuaren zentsura "klasikotik" hasita zentsurarik maltzurrenaraino (administratiboa, adibidez), jendetzaren/gizartearen zentsura barne hartuz (talde kontserbadoreak, nazionalistak edo erlijiosoak), zenbaitetan autozentsurara eramaten duena; merkatuaren zentsuratik liburuaren politika publikoen gabezia edo hutsuneetara, liburuaren arloko profesionalak gainditu behar dituzten oztopo ugariak *fair speech*-a mehatxatzen dute. Adierazpen-askatasunaren parte bada ere, editatzeko askatasuna, alegia, autore bat aukeratzeko, haren idazkiak onartzeko, banatzeko eta merkaturatzeko askatasuna, askotan eragotzi eta mugatu egiten da, eta horrek, aldi berean, saihesteak eragiten ditu, irakurtzen ditugun testuen historia ezkutua osatzen dutenak. Mahai-inguru honek, batetik, azterlana osatzen duten ahots eta ibilbideen aniztasuna itzuliko du, eta, bestetik, martxan dauden erresistentzia- eta elkartasun-mugimenduei ahotsa emango die.

- Aliantzaren sareak editatzeko askatasunari buruz egindako azterlan argitaragabea kaleratzea. Editatzeko aske izatea? Zer esan nahi du horrek 2021ean?
- Editoreen hitzak eta testigantzak. *Free speech vs fair speech* munduko eskualdeetan
- Azadeh Parsapour, editorea (Nogaam), Iran/Erresuma Batua
- Mohamed El Baaly, editorea (Sefsafa Publishing), Egipto
- Tomaz Adour, editorea (Vermelho Marinho, LIBRE), Brasil
- Müge Gursoy Sokmen, editorea (Metis Publishers), Turkia
- Antoinette Koleva, editorea (KX Critique and Humanism), Bulgaria (moderatzailea)

## Kafea (11:30-12:00)

## "Minorizatutako" hizkuntzetan idatzi eta argitaratzea (12:00-14:00)

Soilik Europar Batasunean 60 hizkuntza minoritario edo minorizatu inguru hitz egiten direla esaten da. Guztira, Europako biztanleen % 10 inguruk maiz hitz egiten dituzte hizkuntza horiek, eta migrazioaren ondorioz, kopuru horiek handitzen ari dira. Batzuetan, hizkuntza gutxitu bateko hiztunak (eta irakurleak) hizkuntza ofizial bateko hiztunak baino gehiago dira; hori gertatzen da, adibidez, katalanarekin. Hizkuntza horien egoera askotarikoa da, zer esanik ez tradizio idatzirik ez duten hizkuntzena. Minorizatutako hizkuntzetan argitaratzeak erronka oso konplexuak dakartza sarri, eta sektoreko profesionalak erronka horiei buruz solastuko dira mahai-inguru honetan.

- Marie Michèle Razafintsalama, editorea (Jeunes malgaches), Madagaskar
- Dante Gonzales, editorea (Pakarina Ediciones), Peru
- Maria José Galvez, Liburuaren eta Irakurketa Sustatzearen zuzendari nagusia, Kulturako Ministerioa
- Garazi Arrula, euskarazko editorea (Txalaparta), Nafarroako probintzia (moderatzailea)

## Bazkaria (14:00-15:30)

## Lantegi kolektiboa: eraldaketa digitalek liburuaren sektorean duten inpaktua (16:00-18:00)

aldez aurretik izena emanda

## Aurrez aurreko topaketa profesionalak (18:00-19:30)

# 2021eko azaroaren 26a, ostirala

## Edizio independentearen etorkizuna Aliantzako sareen artean eta modu kolektiboan diseinatzea (9:00-12:00)

Aliantzako kideen arteko barneko lan-bilerak

### >2022-2025 aldirako ekintza-plana, orientabideak eta gobernantza

Aliantzaren hizkuntza-sare guztiak gutxienez behin bilduko dira 2020 eta 2021 artean, birtualki. Hizkuntza-sareen arabera bilera horien helburua da 2021-2022 topaketak prestatzea (topaketetarako lehentasunezko gaiak, kontuak eta proiektuak identifikatzeko), 2021-2022 aldirako sareen ibilbide-orria zehaztea eta elkarrearen gobernantzan lan egitea.

Topaketak itxiko dituzten bilerak amaitzerako, honako bi helburu nagusiak erdietsi nahi dira:

- 2022-2025erako Aliantzaren orientabideak eta ekintza-plana finkatzea, topaketetako lehentasunezko gaietan oinarrituta
- 2022-2025 aldirako elkarrearen gobernantza zehaztu eta baliozkotzea

Kafea (12:00 - 12:30)

## “Etorkizuneko” liburua BIRpentsatzea! (12:30-14:00)

Bibliodibertsitatearen enbaxadoreen parte-hartzeak (Vandana Shiva, autorea eta aktibista, India; Djaili Amadou Amal, autorea, Kamerun)  
Topaketen deklarazioa

Bazkaria (14:00-15:30)

Aliantzak 20 urte (21:00)

# 2021eko azaroaren 27a, larunbata

## Nafarroan barnako bisita kulturala (10:00-14:30)





# Nazioarteko topaketa hauetan parte hartu nahi al duzu?

Mahai-inguruetan eta eztabaidetan parte hartzea doakoa eta guztientzat irekia da ([aldez aurretik erreserbatuta](#)): zuetako askok parte hartuko duzuela espero dugu!

Ostatua behar izanez gero, Editore Independenteen Nazioarteko Aliantzak ekitaldiari lotutako hotelen zerrenda bat eskuragarri jarriko du bere webgunean (prezio bereziak).

Informazio eta xehetasun gehiago nahi izanez gero, jar zaitez Editore Independenteen Nazioarteko Aliantzarekin harremanetan [equipe@alliance-editeurs.org](mailto:equipe@alliance-editeurs.org)



[www.alianzadeeditores.org](http://www.alianzadeeditores.org) ♦ [equipe@alliance-editeurs.org](mailto:equipe@alliance-editeurs.org)

Facebook ♦ Twitter ♦ Youtube ♦ Instagram

[www.editargi.com/es](http://www.editargi.com/es) ♦ [info@editargi.com](mailto:info@editargi.com)